

ERABAKIA, 2015eko OTSAILAREN 2koa, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GERENTEARENA, HORREN BIDEZ, LANPOSTU BATZUK ALDI BATEZ ETA ZERBITZU EGINKIZUNETAN BETETZEKO DEIALDIA, 2014ko ABENDUAREN 16koa, EBATZI DA.

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearen 2014ko abenduaren 16ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

Bigarrena.- 2015eko urtarrilaren 17ko erabakiaren bidez, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrendak argitaratu ziren.

Hirugarrena.- Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Honako hauek dira aplikagarri:

- Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua).
- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAA n argitaratua).
- Gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko den 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia, UPV/EHUko errektorearena (2013ko otsailaren 13ko EHAA)
- Administrazio eta zerbitzuetako langile funtzionarioen zerbitzu betekizunak adjudikatzeko prozedura barematua ezartzeari buruzko akordioa, 2014ko uztailaren 1ekoa.
- Akordioa, 2014ko uztailaren 1ekoa, AZP funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak deitu eta esleitzeko prozedura arautzeko dena.(2014ko abuztuko 27ko EHAA)
- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen 2014ko abenduaren 16ko erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

Bigarrena.- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2013ko urtarrilaren 30eko errektorearen erabakiaren bidez (2013ko otsailaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

Hirugarrena: Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunaren erregimenaren bidez hornitzeko prozedura hau da: administrazio eta zerbitzuko pertsonaleko funtzionarioaren zerbitzu-betekizunen prozedura barematua berria ezartzeko 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioari jarraituz, administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak deitu eta esleitzeko prozedura arautzeko den 2014ko uztailaren 10eko erabakian. (2014ko abuztuko 27ko EHAA) AZP funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak deitu eta esleitzeko prozedura arautzeko dena

Laugarrena.- Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak baloratzeko zehaztutako baremazioaren arabera puntu gehien lortzen dituen izangaia eta, betiere, laugarren artikuluan adierazitako hurrenkerari jarraituko zaio hautaketa egiterakoan. Hautatutako pertsona adierazitako epean hasiko da zerbitzu betekizunen xede den lanpostuan edo eginkizunetan.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau

ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Zerbitzu eginkizunean iragarritako lanpostuen aldi baterako betetzea esleitzea, hautatutako funtzionarioei, erabaki honetako eranskinetan jasota dauden baldintzetan.

Akordioaren 7,2 artikuluan azaldutakoarekin bat, hautatutako pertsona behin behineko funtzionarioa bada, dagokion izendapena egingo zaio.

Esleipenduna lanpostua betetzen ez badu, dagokion eranskinean hala adierazten den funtzionarioari ordezeko esleipena egingo zaio.

Bigarrena.- Esleipena eranskinetan agertzen diren ondorio-datatz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da dagokion prozeduraz lanpostua arauz bete arte. Dena dela, edozein unetan egin liteke atzera, zerbitzuko beharrek hala eskatuz gero.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean.

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, zentro eta zerbitzukoiei eta nominen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

Bosgarrena.- Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2015eko otsailaren 2an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia
(2013ko otsailaren 13ko EHAA).

GERENTEA



Sinatua: Miren Lorea Bilbao Arteche

I. ERANSKINA

2015eko OTSAILAREN 2koa ERABAKIA, UPV/EHUKO GERENTEARENA, BILBOKO INGERIARITZA G.E.T.rako "IKASTEGIKO TEKNIKARIA" LANPOSTUA ALDI BATERAKO BEHIN BEHINEKO FUNTZIONARIOA BEZALA EMATEA EBAZTEN DUENA (2014ko ABENDUAREN 16ko ERABAKI BIDEZ IRAGARRITAKO DEIALDIA)

Esleipenduna: UNAI GOIKOETXEA BLANCO
Lanpostuaren izena: Ikastegiko Teknikaria

Erref.: F 1087

Dotazioa: 3

Taldea: A/B

Kidegoa edo eskala: Gestio Teknikaria/Unibertsitateko Gestioa

Maila: 23

Jardunaldia: Normalizatua.

Hizkuntz eskakizuna: 3; Derrigortasun -data:12/12/31

Betebehar espezifikokoak :Ingelesa (B2)

Ikastegia: Bilboko Ingeriaritza G.E.T.

Campus: Bizkaia

Ondorioetarako data: 2015eko otsailaren 3

II. ERANSKINA

2015eko OTSAILAREN 2koa ERABAKIA, UPV/EHUKO GERENTEARENA, PERTSONALEKO GERENTEORDETZARAKO "LANGILEEN IKASKETA, PLANGINTZA ETA PRESTAKUNTZAKO KABINETEKO BURUA" LANPOSTUARI BEHIN-BEHINEKO ATXIKIPENEAN EMATEA EBAZTEN DUENA (2014ko ABENDUAREN 16ko ERABAKI BIDEZ IRAGARRITAKO DEIALDIA)

Esleipenduna: AMAYA LANDERA LÓPEZ

Lanpostuaren izena: Langileen Ikasketa, Plangintza eta Prestakuntzako Kabineteko Burua

Erref.: F 168

Dotazioa: 1

Taldea: A

Kidegoa edo eskala: Gestio Teknikaria

Maila: 25

Jardunaldia: Normalizatua.

Hizkuntz eskakizuna: 3 Derrigortasun -data:95/01/31

Ikastegia: Pertsonaleko Gerenteordetza

Campusa: Bizkaia

Ondorioetarako data: 2015eko maiatzaren 1

III. ERANSKINA

2015eko OTSAILAREN 2koa ERABAKIA, UPV/EHUKO GERENTEARENA, BIZKAIKO CAMPUSEKO BIBLIOTEKARAKO "BIBLIOTEKA ZERBITZUAREN ARDURADUNA" LANPOSTUA ALDI BATERAKO ZERBITZU EGINKIZUNEN ERREGIMENEAN EMATEA EBAZTEN DUENA (2014ko ABENDUAREN 16ko ERABAKI BIDEZ IRAGARRITAKO DEIALDIA)

Esleipenduna: M^a PILAR AZLOR VILLA

Lanpostuaren izena: Biblioteka Zerbitzuaren Arduraduna

Erref.: F264

Dotazioa: 8

Taldea: A/B

Kidegoa edo eskala: Artxibo, Biblioteka eta Museoetako Ahaldunak./Artxibo, Biblioteka eta Museoetako Aitutariak

Maila: 23

Jardunaldia: Normalizatua Larunbatekin

Hizkuntz eskakizuna: 3

Ikastegia: Bizkaiko Campuseko Biblioteka

Campusa: Bizkaia

Ondorioetarako data: 2015eko otsailaren 3